— apirilaren 15ean **Uztaritzen**, eskola publikoetako zuzendarientzat ;
— maiatzaren 1ean **Bidarrin**, herri hortako feriakari ;
— maiatzaren 15etik 17ra **Urdiñarben**, musikaren egunakari ;
— ekainaren 22tik uztailaren 10era **Baionako** ospitalean, gaia zelarik "Euskara erizain eta erien arteko harremanetan" ;
— uztailaren 13tik agorrilaren 30era **Donibane-Lohizuneko** Ducontenia gelan ;
— irailaren 4etik 9ra **Angeluko** C.M.C.A.S.ean ;
— irailaren 28tik urriaren 9ra **Angeluko** E.D.F.eko geletan ;
— azaroaren 16tik 26ra Agilera poliklinikan, **Biarritzen**, gaia zelarik "Euskara erizain eta erien arteko harremanetan".

- **Bertsularitza**

— uztailaren 13tik agorrilaren 30era **Donibane-Lohizuneko** Ducontenia gelan ;
— urriaren 3an **Muskildin**.

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO PARTAIDE DIREN ELKARTEEN EKINTZAK

Ekintza hauentzat, eta proiektuen ahal bezain ongi antolatzeko, Euskal kultur erakundeko langile profesionalek elkarteei egunero jakinduria eta sustengu teknikoa ekartzen dizkie.

- **A.E.K.** - Baiona. Ordezkaria : Nicolas Regerat
  Euskararen bultzatzea Donibane-Lohizune, Ziburu eta Hendaiako komerzioetan eta komunikazio tresna batzuen egitea saltegietan ibiltzen diren euskaldunek euskara erabil dezaten.

- **ALDUDARRAK-BIDEO** - Aldude. Ordezkaria : Mikel Erramouspé
  Bideo-kazeta baten egitea, honen lema delarik : ***"Ondarea, gazteen begitik"***. Aurkeztua izan da ondarearen egunen karietara Baionan, Léo-Lagrange gelan, urriaren 16ean eta Irisarrin, urriaren 18an.

- **ALTXA-LILI** - Azkaine. Ordezkaria : Pantxika Telleria
  Kultur ekitaldi baten antolaketa bi asteburutan azaroan eta abenduan Azkaineko Altxa-lili, Sarako gaztetea, Berako Gure txokoa eta Etxalarreko Altxata elkarteen artean.
  Egitaraua :
— azaroaren 21 eta 22an Saran : Euskal antzerki talde amateurren topaketa A.M. Labayen-en omenez
— azaroaren 27an Etxalarren : mintzaldia "Grafologia" Irune Ibarrarekin
— azaroaren 28an Saran : zine arratsa (16 laburmetraia)
— azaroaren 29an Etxalarren : herriarteko jokoak eta bazkaria
— abenduaren 1ean Azkainen : mintzaldia "Teknologia berriak eta gu" Pello Zubiria eta Joxemari Ostolazarekin
— abenduaren 3an Beran : mahaingurua "Herri telebistak"
— abenduaren 4ean Beran : kontzertuak. Talde gonbidatuak : Zaund, Akauzazte eta D.J. Banbinorekin
— abenduaren 5ean Azkainen : bertso-txiste afaria
— abenduaren 6ean Saran : ziber-kafea.

- **ANDERESERORAENIA** - Arbona. Ordezkaria : Jean-Pierre Expert
  Hedapena
— martxoaren 7an : kontzertua Xaramela, Kari Pampa eta Misa Criollarekin
  Arbonako Andereseroraenian erakusketak :
— apirilaren 19tik maiatzaren 2ra : Roger Bravard-en margoak eta Philippe Ravier-en zizelanak
— abenduaren 6tik 27ra : euskal mendia Miguel Anguloren eskutik.

- **ANTZERKILARIAK** - Hendaia. Ordezkaria : Aintzane Lasarte
  Euskarazko haur antzerki atelierak eta ondotik agerraldiak. 7/10 urteko haurren taldeak "Hegalkada" antzerkia aurkeztu du maiatzaren 27an Beran eta ekainaren 1ean Hendaian. 11/14 urtekoek aldiz "Tira bostak, txo" antzerkia ekainaren 1ean Hendaian (Maiatzaren antzerkia kari), ekainaren 24ean Izuran eta ekainaren 29an Hendaian (Ikastola eta eskola publikoarentzat).

- **BIARRITZ CULTURE** - Biarritz. Ordezkaria : Jacques Abeberry
  "Bi harriz lau xori" kultur astearen antolaketa martxoaren 23tik 28ra. Ohorezko gomitatua : Mariasun Landa idazlea.

- **COMEDIA** - Baiona. Ordezkaria : Aitor Arandia
  "Iparraldea" : ekonomia, soziala eta kultura aipatuko dituzten 30 minutako 20 emankizunen ekoizpena. Euskal Herri osoan eta Latino Ameriketan zabalduak izanen direnak astero Euskal Telebistaren bidez.

• **HAZIA** - Urruña. Ordezkaria : Jean-Marie Zozaya
Kultur ekitaldi baten egitea elkartearen 20. urtemuga ospatzeko.
— martxoaren 27an Posta gelan, mahaingurua. Gaia : "Euskararen gaurko egoera eta geroa". Parte hartzaileak : Erramun Bachoc (E.K.E.), Beñat Eyherabide (Euskal haziak), Thierry Delobel (Ikas-bi), Philippe Goyetche (Seaska).
— apirilaren 30ean Postan, "Hazia ereinez" Mixel Dhers-en argazki erakusketaren estreina eta Pantxoa Etchegoin-en mintzaldia : "Euskal kultur erakundea eta partaide dauzkan elkarteen arteko harremanak".
— maiatzaren 1ean : Piarres Larzabal-ek idatzi "Bordaxuri" antzerkia, izen bereko taldeak emanik.
— maiatzaren 2ean : Txirri, Mirri eta Txirribiton pailasoen emanaldia.
— maiatzaren 3an, egun guzia : karriken alaitzea eta bazkaria Murua, Lizaso, Arzallus eta Xanpun bertsulariekin eta Maddi Oihenart, Michel Arotce eta Beñat Elizondo kantariekin. Ondotik erromeria Eztanda anai-arrebak eta Nahas-Mahas-ekin.

• **HERRI SOINULARIAK** - Hiriburu. Ordezkaria : Beñat Achiary

— ***"Hartzaro"*** festibala urtarrilaren 22tik 25era Uztaritzen :
urtarrilaren 21a : mintzaldi-eztabada "Pedagogia Euskal Herriko musika eskoletan"
urtarrilaren 22a : mintzaldi-eztabada "Ihauterietako ohidurak Uztaritzen"
urtarrilaren 23a : kontzertua "Hegoaldeko ahotsen topaketa"
urtarrilaren 24a : pesta egun guzian ("xerri hiltzea", mutxikoak, haurren kontzertua, musikak, dantzak, dantzaldi)
urtarrilaren 25a : Bixintxoko pesta (meza, apairua, dantzaldia).

— ***"Xiru 9"*** festibala apirilaren 3tik 5era Gotaiñen :
apirilaren 2a : mahain-ingurua "Euskara nontik nora" JosAnton Artze eta Enaut Etchamendy-rekin
apirilaren 3a : sorkuntza "Mintza" : kafe-antzerki "Xibero", ondotik René Martinez kondalaria. Egunean, animazioak ikasleentzat J.F. Tisne, B. Lubat, M. Etchecopar, René Martinez, C.F.M.I. d'Orsay eta Garindañe eta Gotaiñeko eskolekin.
apirilaren 4a : kontzertua "Hitzen musika", Maia Pavlovska eta M.J. Serrero, Bernard Lubat, Tehenta, Cie Le Grain, Beñat Achiary, Joël Merah, Mixel Etchecopar-ekin. Ondotik, fandango Jesus Aured eta bere akordeolari taldearekin.
apirilaren 5a : Uztaro-ren "Sonügailü kanikadüna"ren estreina, ikusgarria Cie Le Grain, sorkuntza "Le cagier à la Xirula" René Martinez eta Mixel Etchecopar-ekin, ikusgarria Lubat eta Minvielle, Mama Sissoko eta Garazi "Ça où l'system"-rekin.

— ***"Errobiko festibala"*** uztailaren 23tik 25era Itsasun :
uztailaren 23a : ibilaldi, ipuin, musika, "Oteiza"ren erakusketa eta jazz
uztailaren 24a : opéra "Ilargi xendera", musika, kontzerku "Blast"ekin
uztailaren 25a : solasak, "La nuit des géants", dantza "Le courrier du Pacifique", dantzaldia.

• **IKAS** - Uztaritze. Ordezkaria : Xan Errotabehere
— Literatura mindegia Baionan Ur Apalategi-k kudeaturik Xabier Mendiguren, Itxaro Borda eta R. Saizarbitoria-rekin.
— Literatura mindegia Donibane-Garazin Antton Luku-k kudeaturik Manex Lanatua, Mattin, Frantxua eta Guillaume Irigoien, Mixel Berokoirigoin eta X. Montoia-rekin.
— "Idazleak eskoletan" : eskola denboran, euskal idazle baten liburu bat irakurri ondoan edo liburuaren zati zenbait bederen, irakasleak idazlea gomitatzen du haurrekin mintzatzera jin dadin. Jean-Baptiste Dirassar, Guillaume Irigoien, Daniel Landart eta Mailux Legorburu izan dira ikasleekin mintzatzen.
— "Joko moko" antzerki animazioa eskola eta kolejioetako euskarazko 11 irakasleentzat, martxoaren 4ean Lapurdi gelan, Txomin Héguy-k kudeaturik.

- **PIZTU** - Baiona. Ordezkaria : Pantxo Belin
"Euskal Herria zuzenean" festibala uztailaren 3, 4 et 5ean Arrosan :
— uztailaren 3a : zeltiar gaua Diggers, Zapozain, Qwenc'hlan, Celtas cortos, Red Cardell eta Skunk taldeekin
— uztailaren 4a: rock gaua Mokoka, Bi kate, La polla, Les shériff, Reincidentes taldeekin
— uztailaren 5a : herri eta kultur arteko topaketa Aire ahizpak, Canta U populu corsu, Raak et les Dupuiz, Soldat Louis, Lou Dalan, Kukumiku taldeekin
Entzunikus :
— Festibala aurkezten duen K.D. baten sorkuntza, zortzi kantuz osatua, Aire ahizpena barne
Formakuntza :
— "Euskal Herriko historia" formakuntza gazteentzat.

- **R-DIZKA** - Urruña. Ordezkaria : Antton Basurco
"Erdizka lauetan" deitu K.D.ren hedapenarentzat laguntza. Lau rock taldeek parte hartzen dute K.D. horretan : Dementzia eta Hats (Lapurdi), Zpeizurdiak (Baxe-Nafarroa), Ozke (Xiberu).

- **SYNDICAT D'INITIATIVE** - Sara. Ordezkaria : Daniel Laplacette
Biltzarraren arduraduna : Jean-Michel Garat medikua
"Euskal Herriko idazleen XV. biltzarra" apirilaren 13an Saran.
Idazleen arteko elgarretaratze bat da eta denbora berean harremanak sortzen dira publikoarekin, idazleek beren liburuak saldu eta izenpetzen dituztelakotz. Besta goxo bat bilakatua da Biltzar hori.

- **THEATRE DES CHIMERES** - Biarritz. Ordezkaria : Marie-Julienne Hingant
"Haurra xutik" euskal antzerkiaren bultzatzea Xiberu, Baxe-Nafarroa eta Lapurdi barnekaldean. Formakuntza ekintzen zabaltzea haurrek hezkuntza artistikoa balia dezaten eskola denboran edo eskolatik kanpo.

- **UDA LEKU** - Baiona. Ordezkaria : Eñaut Elosegi
"Herrialde urdina" txontxongilo ikusgarria Kukubiltxo taldearen eskutik otsailaren 11an Aiziritzen. "Rudy" eta "Gezi urdina" bi filmen aurkezpena , otsailaren 12 eta 13an Baionan (L'Atalante zinegelan) eta Donapaleun (St-Louis zinegelan). Bertsularitzari buruzko formazioa uztailaren 18tik 26ra Hazparnen.

- **UHAITZA** - Mendikota. Ordezkaria : Martine Etchebarne
Formakuntza :
— Pedagogi atelieren antolaketa Xiberuko eskoletan. Gaia : ohiko musika.
Hedapena :
— Müsikaren eguna maiatzaren 15etik 17ra Urdiñarben
— Mintzaldi eta erakusketen antolaketa
— "Kültüraldia" bihilabetekariaren argitalpena
— Ikusgarri zikloa
— Elkarteen arteko koordinaketa kultur gertakarientzat.

- **XIRRIXTAZALEAK** - Hendaia. Ordezkaria : Koldo Amestoy
(Arduradunak : Kattalin Totorika eta Aintzane Lasarte).
Xirrixta eta Kometa haur aldizkarien azken zenbakien plazaratzea. Zorigaitzez, bi aldizkari balios horien arduradunek ez dute segitu ahal izan hasi sail ederra, harpidetza eskasez.

- **XIRRIXTI-MIRRIXTI** - Baiona. Ordezkaria : Elena Charritton
"Beherearta" antzerkiaren sorkuntza. Idazlea : Pantzo Hirigaray. Taula zuzendaria : Edi Nadau. Hameka jokolari. Lehen aurkezpen publikoa : urriaren 11an Donibane-Garaziko Vauban gelan.

PRENTSAN ZEHAR

Euskal kultur erakundea INTERNET-ean
L'Institut culturel basque est sur INTERNET

ZER EGITEN DUGU ?

Euskal kultur erakundeak presunek edo elkarteek sortu egitasmoetarik abiatuz, euskara eta euskal kultura suharki sustengatzen ditu.
Sustengu hori hiru alorretan banatzen da :

Formakuntza
Antzerki, literatura, musika eta dantza ikastaroen bidez.

Sorkuntza
Antzerki sorkuntza bat adibidez, diruz lagunt daiteke edo teknikoki berdin (aholku artistikoak emanez, errepetizione gelak atxemanez, materiala prestatuz).

Hedapena
Diruz lagunduak dira festibalak (Hartzaro, Errobiko festibala, Xiru, Euskal Herria Zuzenean), ikus-entzunezko ekoizpenak (Euskal irratiak bainan ere Aldudarrak Bideo, 16 Arts Production edo Comedia adibidez) eta idazle (Sarako Biltzarra), kantari edo dantzarien arteko topaketa batzu...

QUE FAISONS-NOUS ?

L'Institut Culturel Basque soutient activement la langue et la culture basques, à travers les projets véhiculés par des individus ou des associations
Ce soutien est apporté dans trois domaines :

La formation
Ateliers de théâtre pour enfants et adolescents, de littérature, de musique traditionnelle, de danse, ...

La création
Aide financière et logistique (repérage de salles de répétition, prêt de matér

La dif
Aide f
Xiru,
d'expr
Comé

¿ QUE ES LO QUE HACEMOS ?

El Instituto cultural vasco apoya de forma activa la lengua y la cultura vasca a través de proyectos dirigidos por particulares o por asociaciones.
Este apoyo se da en 3 campos :

La formación
Talleres de teatro para niños y adolescentes, talleres de literatura, de música tradicional, de danza...

La creación
Ayuda financiera y material (localización de salas de ensayo, préstamo de material), consejo artístico (puesta en escena).

La difu
Ayuda f
Euskal
emiten
Comédi

WHAT DO WE DO ?

The Institute of Basque Culture actively supports the language and culture of the Basque Country by participating in projects initiated by individuals and non-profit organizations.
EKE supports three main actions :

Teaching
Workshops : theater for children and adolescents, littérature, traditional music, dance...

Creation
Financial aid, organizational help (rehearsal halls, loan of material), artistic advice (stage direction).

Diffusion
The following festivals benefit from our financial and technical help (Hartzaro, Errobiko festibala, Xiru, Euskal Herria Zuzenean), audiovisual productions (Basque language radios, Aldudarrak Vidéo, 16 Arts Production or Comédia for example), meetings for authors (Biltzar de

S.O. 1998. 02.11

Un coup d'accélérateur

Pantxoa Etchegoin, le nouveau directeur de l'Institut culturel basque, a présenté hier son projet pour 98. Il veut renforcer l'information, la formation et la diffusion

PHILIPPE HEMMERT

« Rien de spectaculaire, mais une intensification du travail de fond ». C'est en ces quelques mots que Pantxoa Etchegoin, le nouveau directeur de l'Institut culturel basque, a résumé hier la politique qu'il entend mener au cours de cette année à la tête de la structure installée au château Lota à Ustaritz. Après avoir succédé à Txomin Héguy l'été dernier, il a multiplié les contacts et les rencontres depuis quelques mois et peaufiné un projet culturel qui s'articule autour de trois maîtres-mots : l'information, la formation et la diffusion.

Le renforcement de l'Institut comme centre de ressources et d'échanges d'information culturelles est présenté comme un premier objectif. Il s'agit, aux yeux de son directeur, de « continuer à tisser des liens étroits entre les acteurs culturels et pousser ceux-ci à en faire autant entre eux ». A cela s'ajoute la mission de mieux faire connaître la culture basque, à l'intérieur de ses terres, mais aussi à l'extérieur. D'où la décision de créer un nouveau support de communication, « Leihotik » *(voir-ci-contre)*, mais aussi celle de créer une page web sur Internet.

De plus, et dans la même optique, un effort sera fait pour référencer artistes et ouvrages disponibles dans la bibliothèque de l'Institut. Sur le plan de la formation, Pantxoa Etchegoin met l'accent sur la création d'un nouvel atelier-théâtre à Cambo et la mise en place d'une sensibilisation des enseignants à cet art dans les écoles du Pays basque. Il évoque aussi le naissance d'un atelier-littérature à Bayonne. Animé par un jeune écrivain, il permettra d'analyser des oeuvres d'auteurs basques contemporains. Des sessions de formation sont également prévues autour des thèmes du chant et de la musique.

L'ANNEE DU THEATRE

Mission essentielle de l'Institut, l'appui à la création et à la diffusion fera l'objet de tous les soins, avec une priorité pour l'audiovisuel, le spectacle vivant et le patrimoine. « L'année 1998 sera sans aucun doute l'année du théâtre », affirme Pantxoa Etchegoin en évoquant notamment la commémoration du dixième anniversaire du décès de l'auteur labourdin Piarres Larzabal. Parallèlement, deux créations verront le jour : « Beherearta » de Pantzo Hirigaray, par la troupe Xirrixti-Mirrixti, et ensuite l'adaptation en basque de « L'enfant debout », par la compagnie des Chimères, avec la présence de deux comédiens de part et d'autre de la Bidassoa, Txomin Héguy et Olatz Beobide. Autre initiative, le thème du « patrimoine vu par les jeunes » pour les prochaines journées du patrimoine à Irissary. Un travail a été entrepris en direction des jeunes, il aboutira le jour venu à l'expression de leur façon de vivre leur identité et leur culture. Les rencontres autour du chant et de la musique sont également citées en exemple, tout comme les rencontres créant des échanges et des espaces de vie dans les villages. L'Institut se fixe comme objectif tout particulier de travailler en direction de la côte et du Pays basque sud. « Une culture ne peut se régénérer que si elle est largement diffusée » souligne le directeur. « Or, la culture basque est quasiment absente de la côte où vivent plus de 70 % des habitants ».

Enfin, à l'heure où des fonds supplémentaires lui ont été promis — le CIADT de décembre prévoit une enveloppe supplémentaire de 500 000 francs sur deux ans — en lien avec les décisions relatives à la requalification des équipements culturels du Pays Basque intérieur, l'Institut n'entend pas laisser passer cette chance. « L'institut doit participer à la mise en réseau des diverses animations et créer des ponts entre différentes cultures », confirme Pantxoa Etchegoin, qui veut orienter son équipe vers un travail de fond et lui donner un grand coup d'accélérateur. Pour Erramun Bachoc, le président de l'ICB, une nouvelle période est indéniablement amorcée. « Au début il fallait tout faire et il y avait peu de moyens, aujourd'hui le défi de l'Institut consiste à s'insérer dans le schéma d'aménagement du Pays basque ».



Pantxoa Etchegoin, directeur de l'Institut culturel basque, a présenté hier « Leihotik », le nouveau support de communication *(Photo « Sud-Ouest »)*

Leihotik, nouveau support

■ Dans son souci de promouvoir la communication, l'Institut culturel basque lance un nouveau bulletin d'information, « Leihotik », ce qui veut dire « de la fenêtre ». Bimestriel de quatre pages couleur, bilingue, il a pour ambition de mieux faire connaître la culture basque et de tisser des liens plus étroits entre les associations qui en font la richesse. Il donne également la parole à des personnalités qualifiées et comporte un agenda pratique sur le calendrier des manifestations. Diffusé à trois mille exemplaires, « Leihotik » est destiné aux acteurs culturels, aux élus, aux institutions, eux entreprises et aux administrations.

Sud-Ouest
11/2/98

Egunkaria
1998. 02. 11

Beste urrats bat

Euskal Kultur Erakundearen egitasmoaren hiru ardatz nagusi aurkeztu dituzte

Pantxoa Etxegoin EKE Euskal Kultur Erakundearen lehendakariak egituraren aurtengo egitasmoak aurkeztu zituen atzo Uztaritzen. Informazioa, formakuntza eta kulturaren hedapena sustatzea izanen dira lehentasunak. Elkarteen arteko harremanak sendotzeko, *Leihotik* aldizkari berria plazaratuko dute.

Lutxi Fourcade / Uztaritze

PANTXOA ETXEGOIN EKE Euskal Kultur Erakundearen zuzendariak kultur proiektu berria aurkeztu zion Administrazio Kontseiluari joan den abenduan. Zuzendari berria lanari lotu zaio dagoeneko, eta aurtengo egitasmoak berretsi zituen atzo Uztaritzen. Hiru ardatz nagusi jorratuko ditu EKEk aurten, hala nola informazioa, formakuntza eta euskal kultur hedapena.

•EKEk egiazko informazio iturria izan behar du, kulturzaleen arteko lokarrien emendatzeko eta euskal kultura publiko berri bati hedatzeko•, adierazi zuen Etxegoinek. Izan ere, elkarteekilako harremanak sendotzeko behar gorria azpimarratu zuen, elkarteek elkarren berri izateko eta norbera Euskal Herriko kultur gertakarien jakinaren gainean izateko. Informazio behar horri erantzuteko, *Leihotik* bi hilabetekaria plazaratuko du EKEk. Erakundeak *Lauzka* izeneko aldizkaria zabaltzen zuen dagoeneko, baina, EKEren balantzea eskaini ordez, lehentasuna emanen die euskal kultur elkarteei. Aldizkariak erakundearen ekintza nagusien berri emanen du, baina ale bakoitzak aurkeztu du euskal kultur elkarte bat. Bestalde, informazio praktikoa eskainiko die elkarte guztiei. *Leihotik* aldizkariaz gain, EKEk teknika modernoenak ere baliatuko ditu, eta, Etxegoinek azaldu zuenez, orrialde bat izanen du laster Interneten.

EKEko egitasmoaren bigarren helburu nagusia izanen da formakuntza. Kultur partaideak formatzea funtsezkotzat jo du Etxegoinek, eta indar berezia eginen dute sail horretan. Antzerki ikastaldiak hasiak dituzte dagoeneko Kanboko Xalbador Ikastegian joan den urritik. Bestalde, Ikas pedagogia zerbitzuarekin batera, hiru ekintza eramanen dituzte: antzerki sailean, idazleak eskoletan eta literatura mintegia.



Euskal Kultur Erakundeko arduradunak, atzo, *Leihotik* aldizkariaren aurkezpenean.

BOB EDME

Pantxoa Etxegoin: «Euskal Kultur Erakundeak egiazko informazio iturria izan behar du, kulturzaleen arteko lokarrien emendatzeko eta euskal kultura publiko berri bati hedatzeko»

Hedapena sustatzeko behar gorria • Alabaina, hedapena sustengatzeko indar berezia egitea baitezpadakotzat jo zuen Etxegoinek. •Kreazio andana egiten dira Ipar Euskal Herrian, baina ez dira aski zabaltzen•, azaldu zuen EKEko zuzendariak. Hutsuneari buru egiteko, EKEk lan jarraikia eginen du euskal kulturak hedapen sare berriak atzeman ditzan eta harremanetan sartu da Ipar Euskal Herriko hainbat udalekin dagoeneko. Bestalde, EKEk bi euskal antzerki obra berri lagunduko ditu: Pantxo Hirigarairen *Beherearta* antzerkia -Xirrixti-Mirrixtik eskainiko du-, eta *Haurrak xutik* -Théâtre des Chimeres taldeak ekoizturik-. Ekarle dantza taldea ere lagunduko du EKEk *Mendiko zigantea* obra zabaltzeko, Baionan eta Hendaian besteak beste.

Iparraldeko sorkuntza ezagutarazteko Hego Euskal Herrian, EKEk indar berezi bat eginen du aurten, eta bi hitzordu finkatu ditu dagoeneko. Lehena iraganen da apirilaren 29an Urnietan eta Iparraldeko hiru talde bilduko dira ikusgarri batean: Ekarle dantza taldea, Chimeres antzerki taldea eta Txakun rock taldea. •Besten progamatzaileak bilduko ditugu hiru taldeak ezagutaratzeko, eta hemengo sorkuntza ezagutaratzeko lehen urrats bat baizik ez dela izanen espero dugu•, azaldu zuen Etxegoinek. Bestalde, Iparraldeko astea antolatuko dute irailean Iruñean eta Iparraldeko artistak ezagutarazteko aukera eskainiko dute.

EKEren tokia definitu beharra

EUSKAL KULTURA laguntzeko asmoz Ipar Euskal Herrian, Euskal Kultur Erakundea sortu zen 1990ean, Uztaritzen. Hasieran, egitasmo zabala zuen, •zabalegia egia erraiteko•. Erramun Baxok EKEko lehendakariaren ustez. Euskal elkarte guztiek laguntza eskatu zioten, nahiz eta ahal gutxi izan (ia hiru milioi liberako aurrekontua zuen erakundeak). EKEk helburu zehatzagoak landu behar izan zituen, Txomin Hegi zuzendariak kudeaturik. •Lehentasuna eman genien hizkuntzaren eta kulturen antolakuntzei, eta egitasmoa mugatu genuen hainbat sailetan•, oroitu zuen Baxokek.

EKEren funtzioa zehaztuz gero, hirugarren etapan sartu beharra nabarmendu zuen Baxokek atzo Uztaritzen. Izan ere, CIADT ministerioen arteko bilerak lehentasun batzuk finkatu ditu euskal kulturaren arloan, eta erabaki horiek kontuan hartu beharra azpimarratu zuen Baxokek. •Datozen hilabeteetan, Frantziako Gobernuak bideratuko ditu Garapen Kontseiluak bultzatutako hainbat proiektu, eta gure tokia birdefinitu beharko dugu kontestu berri honetan•, azaldu zuen. Izan ere, egitura berriak sortuko dira ondarea babesteko, hala nola Euskal Erakustokia, Irisarriko ondarearen etxea eta Hazparneko zentro arkeologikoa. Era berean, Kontseilu Nagusiak sortuko du hizkuntz zerbitzu bat, eta Hizkuntz Kontseilua lantzen ari da. •Euskararen defentsa izanen da kulturalagoa, gutxienezko tresnak sortuko baitira hizkuntza garatzeko•. Komunikabideei dagokienez, gauza gutxi aipatzen direla oroitu zuen, eta dena egitekoa dela oraindik.

Aldaketa horiek ikusirik, Erramun Baxoken iritziz, EKE sartuko da hirugarren etapan. •Nola kokatzen da EKEren egitasmoa Lurralde Eskemak finkatutako helburuetan?•, galdegin zuen Baxokek. Haren aburuz, gogoetaldi sakona bultzatu beharko da, eta aldaketak aurretik prestatu beharko dira.

CIADTek EKEri emanen dion 500.000 liberako diru laguntzari dagokionez, •laguntza baldintzatua• izanen dela azpimarratu zuen Etxegoinek. Izan ere, Gobernuak laguntza hori bi zatitan emanen du, eta EKEk lan berezia egin beharko du barnealdeko ikusgelak eraberritzeko proiektua lantzeko. •CIADTek 13 milioi libera emanen ditu barnealdeko gelak egiteko. Alabaina, ez du inolako aurrekonturik finkatu gelen ibilmoldea antolatzeko, eta ez dugu uste geure gain hartu beharko dugunik lan berri hori•, azaldu zuen Pantxoa Etxegoinek. ✗

Maribel Bakero, Iker Santiago, Daniel Landart eta Pantxoa Etxegoin, atzoko agerraldian, Urnietan. ANDER GILI ENEA

Iparraldeko hiru taldek antzerkia, dantza eta musika eskainiko dute Urnietan

EKEk eta Sarobe elkarteak antolatu dituzte ekitaldiak datorren asteazkenerako

Ipar Euskal Herriko hiru talde Urnietan izango dira datorren asteazkenean. Sarobe elkarteak, Urnietakoko Udalak eta Euskal Kulturaren Erakundeak (EKE) elkarlanean antolatutako ikuskizun hirukoitza izango da: Les Chimeres taldeak antzerkia eskainiko du, Ekarle konpainiak dantza garaikidea eta Txakunek euskal kantak.

Ane Sarasketa / Urnieta

IPAR EUSKAL HERRIKO eta Hegoaldeko kulturek «bidegurutzean topo egin» dezaten, eta, hala, «elkar ezagutzeko urrats bat» izatea nahi dute Urnietan egingo diren ekitaldi horiek.

Euskal Kulturaren Erakundeak (EKB) eta Urnietako Sarobe elkarteak hiru ikuskizun antolatu dituzte datorren asteazkenerako, apirilaren 29rako. Goizean hasi eta arratsaldera bitartean Les Chimeres eta Ekarle konpainiek eta Txakun musika taldeak beren ikuskizunak eskainiko dituzte. Hiru ikuskizunak haurrei zuzenduak egongo dira, baina baita programatzaile eta Gipuzkoako udaletako euskara zerbitzuetako ordezkarieri ere.

Goizeko 10:00etan egingo du emanaldia Les Chimeres konpainiak, Jean Marie Broucareten zuzendaritzapean: *Haurra Xutik*. Antzerki talde horrek euskaraz eszenaratuko duen lehendabiziko obra izango da *Haurra Xutik*. Lana bera itzulpen bat da, eta mugaz bi aldeetako aktoreek hartuko dute parte. Txomin Hegi eta Olatz Beobidek ordubeteko saioa eskainiko dute. Obra bera hamar urtez goitiko haurrei dago zuzendua. Hamazortzi urtez ari da lanean Les Chimeres, eta dagoeneko idazle garaikideen 28 antzerki taularatu ditu.

«Konpainia horrek euskaraz antzezten duen lehendabiziko aldia izango da Urnietako emanaldia eta, beraz, esan genezake Les Chimeres taldeak hemendik aurrera euskaraz aritzeko adar bat sortu duela», esan zuen Daniel Landartek EKEko zuzendariordeak.

Antzerkia amaitu eta dantzari egingo diote Urnietako Sarobe elkartean. Ekarle konpainiak lehendabiziko aldiz aurkeztuko du Hegoaldean *Mendiko zigantea* lana. Goizeko hamaika eta erdietan izango da hori.

Hamalau urteko ibilbidea duen taldea da Ekarle. Dantzari garaikideak eta euskal dantzariak bildu zituen bere baitan, eta dagoeneko hamar bat sorkuntza taularatuak ditu. *Mendiko zigantea* sei urtetik goitiko haurrei zuzendutako ikuskizuna da, eta 40 minutu inguru irauten du. Mizel Thereten koreografia dauka ikuskizunak, eta dantzari moduan Johanna Etxeberri eta Mizel Theret ariko dira. «Dagoeneko Ipar Euskal Herrian aurkeztutako obra da eta esperientzia polita izan da», esan zuen Landartek.

Egun berean, arratsaldean, euskal kantek eta musikak hartuko dute lekukoa Urnietan. Areto berean, arratsaldeko hiruretan, Txakun musika taldeak bere kantak aurkeztuko ditu. Txomin Larrondek (ahotsa, gitarra akustikoa eta txalaparta), Thierry Arribehautek (gitarra elektrikoa), Fredo Champonek (perkusioak) eta Paxkal Indok (ahotsa, gaita eta txalaparta) osatzen dute taldea.

Orain urtebete inguru kaleratu zuten Txakunekoek azken diskoa, *Arratsa Barroka* izenekoa. Disko horretako abestiak eta disko zaharretakoak eskainiko dituzte. «Dagoeneko Hegoaldean ezagunak badira ere ezagutarazteko ekimenak ez dira inoiz nahikoa izaten», azaldu zuten EKEko ordezkariek.

Bi helburu nagusi • «Esperientzia berria da Urnietan izango dugun, eta horregatik ongi irtetea espero dugu. Dagoeneko Urnietako bertako ikastetxeetan aritu gara harreman lanetan, eta guztira gutxi gorabehera 370 haur etortzea espero dugu», azaldu zuen Daniel Landartek.

Hala ere, ikuskizunak ez dira haurrei soilik zuzenduak izango. Programatzaile eta Gipuzkoako 70 udalerritako euskara teknikariak gonbidatu dituzte, datorren asteazkenean, Sarobeko aretoetara. «Esan bezala euskal kultura bultzatu eta, era berean, guk egiten ditugun sormenak ezagutaraztea dira gure helburuak», azaldu zuen Pantxoa Etxegoinek EKEko zuzendariak.

Urnietako Sarobe elkarteak ere bere helburuen barruan sartuta zituen hilaren 29ko hiru ikuskizunak. «Ekitaldi hauek bat egiten dute Saroben aurrera atera nahi dugun funtzionamenduarekin, hau da, dantza, musika eta antzerki taldeekin elkarlanean aritzea, eta elkarlanean aritzea beste herrialde batzuekin ere bai. Hala, malatzaren 29an British Council konpainia ekarriko dugu Urnietara, eta ekainean beste talde bat Paristik», adierazi du Iker Santiagok Sarobeko zuzendariak. ✗

Bidegurutzean elkartu

«Lehen esperientzia bezala lan interesgarria eta garrantzitsua izango da Urnietan egingo duguna. Baita zaila ere. Baina lehen aldikoz, agian, esperientzia hau baliagarria izanen da beste urrats batzuk egiteko, hain zuzen ere. Hegoaldeko beste gertakari batzuen ezagupenerako urratsak egiteko. Zeren uste dut behar dugula ahal bezainbat gure esperientziak gurutzatu. Iparraldekoek eta Hegoaldekoek bidegurutzean egiteko topo», esan zuen Pantxoa Etxegoinek, EKEko zuzendariak.

Iparraldean egiten diren kultur ekitaldiak ezagutaraztea da Euskal Kultru Erakundearen helburuetako bat. «Gure lana ere bada giroa sortzea eta, agian, hurrengo hilabeteotan beste fruitu batzuk ekarriko ditu Urnietan biziko dugun esperientzia horrek. Agian, Hegoaldeko gertakari batzuek Iparraldera etorriko dira. Hori da segurik gure helburua», gehitu zuen Etxegoinek.

Euskal Kulturaren Erakundearen helburuen artean beren kreazioak ezagutaraztea da, eta hor kokatu dute Sarobeko esperientzia.

«Gure eginkizun nagusia da euskara elkarteen laguntzea. Izan dadin sorkuntzarentzat, formakuntzarentzat edo kultur garapenarentzat. EKEn aurten ohartu gara bereziki badugula lan handi bat egiteko gure kreazioen ezagutarazteko, bai Hegoaldean eta bai Euskal Herritik kanpo.

Lan handia egin beharra dugu hedapen sare berri batzuen ikertzeko eta haiekin lan egiteko, eta gero gure ekitaldien ezagutarazteko».

Egunkaria
1998-IV-23

— Ondarearen gidaliburua : le — guide du patrimoine fin prêt



Le nouveau guide du patrimoine, reconnaissable à la couverture colorée de Mikel Dalbret, est paru depuis quelques semaines. Réalisé par l'Institut Culturel Basque, ce guide répond à un réel besoin de communication. Le premier guide, paru en 1992, avait connu un fort succès.

Depuis, il est épuisé. C'est pourquoi les acteurs du patrimoine et de la vie culturelle désireux de se faire connaître seront ravis de retrouver leur nom dans l'une ou l'autre des rubriques. L'ouvrage actuel reprend et réactualise ainsi toutes les données du guide précédent, mais sous une forme plus synthétique. Le repère des rubriques thématiques est également favorisé grâce aux onglets : on trouvera ainsi les thèmes suivants associations patrimoniales ; les personnes ressources (intellectuels, universitaires, professeurs, grands noms du milieu culturel basque), les administrations, organismes, éducation au patrimoine, documentation, archives, bibliothèques, centres de documentation, musées, matériel didactique, audiovisuel, expositions, monuments historiques et définitions.

Valérie Josa

Le guide est disponible à l'Institut Culturel Basque, château Lota d'Ustaritz pour 75F (11,54 E).

La Semaine du PB
1998. XI - 13